

## % 2,7 hasi dira merkataritza elektronikoaren bidezko salmentak eta % 5,9 erosketak, 2020an, Euskal AEn

### ***Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen proportzioak egonkor dirau eta guztizkoaren % 26,9 da***

Euskal AEko establezimenduek, 2020an, aurreko urteko salmentak baino % 2,7 handiagoak egin dituzte eta, erosketen kasuan, % 5,9 handiagoak, Eustaten datuen arabera.

Salmenta elektronikoak, batez beste, salmenta guztien % 46,6 izan zirela kalkulatu da. Hala badagokio, erosketak elektronikoak 2020an enpresek eginiko erosketak guztien % 40,2 izan ziren.

Euskadiko establezimenduen % 26,9k, berrogeita hiru mila establezimendu inguruk, merkataritza elektronikoa egiten dute Euskal AEn. Zifra hori aurreko urtekoa baino bi hamarren txikiagoa da. Hala ere, sistema horren bidez eginiko salmenta eta erosketen balioak % 2,7 eta % 5,9 egin du gora, hurrenez hurren.

2020an sarearen bidez edo beste sistema elektronikoa batzuen bitartez –besteak beste helbide elektronikoa edo datu elektronikoen trukea (EDI eta beste sare batzuk)– sortutako negozio-bolumenak 22.092,4 milioi eurokoak izan dira, eginiko salmenta elektronikoei dagokienez, eta 16.784,1 milioi eurokoak, egindako erosketari dagokienez.

### **Merkataritza elektronikoa bidez egindako erosketak eta salmentak, lurraldearen eta enplegu-geruzaren arabera**

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2019	2020	Δ %	2019	2020	Δ %
Euskal AE	15.851,3	16.784,1	5,9	21.521,6	22.092,4	2,7
Lurralde historikoa						
Araba/Álava	2.821,2	2.961,0	5,0	6.526,1	6.475,3	-0,8
Bizkaia	8.125,9	8.716,3	7,3	7.969,2	8.396,5	5,4
Gipuzkoa	4.904,1	5.106,8	4,1	7.026,4	7.220,6	2,8
Enplegu-geruza						
0 - 9	4.780,6	4.998,5	4,6	3.586,1	4.196,4	17,0
≥ 10	11.070,6	11.785,6	6,5	17.935,5	17.896,1	-0,2

(\*) Euroak, milioikotan

**Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak**

Lurralde mailan, salmenta elektronikoen Bizkaiko eta Gipuzkoako gorakada nabarmentzen da (% 5,4 eta % 2,8, hurrenez hurren) eta, Araban, % 0,8 egin du behera. Erosketak elektronikoen, bestalde, hiru lurraldeek areagotu dituzte zifra ekonomikoak, eta berriz ere

nabarmentzen da Bizkaia, % 7,3 egin baitu gora, ondoren, Araba (% 5,0) eta, gero, Gipuzkoa (% 4,1).

Lurralde bakoitzaren pisua dela eta, nahiko antzera banatzen dira hiruretan salmenta elektronikoa: Bizkaiak du ehunekorik handiena (autonomia-erkidegoaren guztizkoaren % 38,0), Gipuzkoak gero (% 32,7) eta, ondoren, Arabak (% 29,3). Erosketetan, hala ere, partaidetza ez da hain berdina: Bizkaiak Euskal AEko erosketa elektronikoen guztizkoaren % 51,9 du, 2020an; Gipuzkoak, % 30,4, eta Arabak, % 17,7.

Establezimenduen tamaina aintzat hartuta, 10 enplegatu edo gehiago dituztenetan trukutzen da merkataritza elektronikoa kopuru ekonomiko handiena (salmenta elektronikoen % 81,0 eta erosketa elektronikoen guztizkoaren % 70,2).

Bestalde, merkataritza elektronikoa establezimenduen % 26,9k parte hartu dute, 2020an, aurreko urtean baino ehuneko 0,2 puntu gutxiagok. Murrizketa hori elektronikoki erosten dutenen ehunekoak behera egin duelako gertatu da, aurreko urtean baino ehuneko 0,7 puntu gutxiago; izan ere, nahiz eta salmenta elektronikoa egiten dituztenen proportzioak 0,6 puntu egin duen gora, gorakada horrek ez du lortzen salmentetako murrizketa konpentsatzea. Gaur egun, establezimendu guztien % 24,0k elektronikoki erosten dute, eta % 7,6k salmenta elektronikoa egiten dituzte.

### Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera (%)

	Establezimenduak guztira										
	2001	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2020
Salerosketa elektronikoa	3,0	10,5	15,1	17,3	19,7	21,6	24,8	26,4	26,0	25,1	26,9
Erosketak	2,7	9,6	14,2	16,1	18,0	19,7	23,1	23,9	24,0	23,0	24,0
Salmentak	0,4	1,9	3,9	4,1	4,6	5,2	6,0	6,5	6,5	6,8	7,6
Erosketen gaineko (*)	9,6	15,5	28,1	30,8	33,7	29,4	30,6	31,3	33,3	36,2	40,2
Salmenten gaineko (*)	9,9	24,6	38,6	39,3	36,6	35,9	38,9	36,8	35,1	41,4	46,6
	<b>10 langile edo gehiago</b>										
Salerosketa elektronikoa	6,4	19,5	23,1	24,9	27,7	27,5	28,8	30,0	29,7	29,0	33,5
Erosketak	5,1	17,3	20,3	21,4	23,6	23,4	25,0	25,3	25,8	25,1	28,9
Salmentak	1,8	5,1	8,5	9,8	10,4	10,0	10,8	11,4	11,9	12,6	14,2
Erosketen gaineko (*)	4,6	10,3	24,6	30,8	33,7	27,0	28,3	31,0	30,7	32,4	34,0
Salmenten gaineko (*)	12,7	19,4	38,4	40,9	42,8	36,2	37,8	42,6	42,1	43,2	43,3

(\*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektronikoen batez besteko %

**Iturria: Eustat. Informazioaren gizaritearen inkesta. Enpresak**


Era berean antzematen da, nahiz eta bide elektroniketatik erosten duen establezimendu-kopurua bitarteko beraren bidez salmentak egiten dituen establezimendu-kopurua baino askoz ere handiagoa den, zifra ekonomikoetan handiagoak direla salmentak (22.092,4 milioi euro) erosketa elektronikoa baino (16.784,1 milioi).

Zifra horiek aldatu egiten dira, enplegu-tamaina kontuan hartzen bada. Hala, 10 enplegatu edo gehiagoko establezimenduetan, merkataritza elektronikoa % 33,5ek egiten du –aurreko urtean baino ehuneko 0,3 puntu gehiago–. Segmentu horretan ere gehiago dira erosketa elektronikoa egiten dituztenak (% 28,9), eta pisu gutxiago dute bide beretatik salmentak

egiten dituztenek (% 14,2), baina tamaina horretan gora egin dute erosten dituztenek eta saltzen dituztenek (ehuneko 0,6 puntu eta 0,4 puntu, hurrenez hurren).

Erosketa elektronikoak egiteko bitartekoak direla eta, kopuru ekonomiko osoaren % 52,3 posta elektronikoaren bidez egin da, % 24,9 EDIren eta beste sare batzuen bitartez eta gainerako % 22,8a, web-orriaren bidez. Bestalde, salmenta guztien % 36,8 web-orriaren, aplikazioen (app-ak) edo Interneteko salmenta-atariaren bidez egin da; % 31,8, posta elektronikoaren bidez, eta gainerako % 31,4a, EDI eta beste sare batzuen bidez.


### Euskal AEko merkataritza elektronikoak, erabilitako bitartekoaren arabera. 2020



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

2020an merkataritza elektronikoko salmenten xede izan diren bezeroak direla eta, gehienak, baliabide elektronikoen bidez fakturatutako guztizkoaren % 74,2k, beste enpresa batzuk izan ditu hartzaile (B2B izeneko merkataritza), % 24,2 kontsumitzaile partikularrei zuzendu zaie (B2C) eta gainerako % 1,7a beste bezero mota batzuetan banatu da, besteak beste, administrazio publikoak (B2G).

### Salmenta elektronikoaren helburua Euskal AEan, bezero-motaren arabera. 2020



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

## INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie estatistika hau egiten elkarlanean jardun duten enpresa eta erakundeei; informazio-bilketa 2021eko urtarriletik apirilera bitartean egin da.

---

**Argibide gehiagorako:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prensa Zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62*